
1.BALIO PROPOSAMENA

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gaur egun geroz eta aplikazio gehiago erabiltzen ditugu edozer gauza egiteko eta oso erabilgarriak izaten dira. Guk eskaintzen dugun app-ak taberna ezberdinen informazioa ematen du gustu ezberdinen arabera. Taberna ezberdinak gomendatzen ditu, balorazioak, kokapena, kontsumizio ezberdinen arabera eta norberaren gustuetara egokitzen da. Askotan tabernak bilatzeko garaian arazoak egoten dira, tokia ez izatea, menua, bai eta erreserba egiterako orduan. Hori guztia ahalik eta gehien sahiesteko aplikazio honek eskaintzen dizkigun zerbitzuak egokiak izan daitezke eta beti kalitate onenarekin. App honi esker taberna bat bilatzea askoz ere errazagoa da, gustoko taberna nolakoa izatea nahi duzun aukera daiteke eta aplikazioak eskatutakoaren arabera bilatzen ditu tabernak bakoitzaren gustukoa izan dadin.

Hau ez da pertsona helduentzat bakarrik baizik eta kontsumitzen duten bezero gazteentzat ere, adin ezberdinetakoen tabernak bilatzearen arazoak sahiesteko erabiltzea da gure helburu nagusia.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Beste lehiakideengatik bereiztea erraza izan daiteke izan ere gure diseinua oso erabilgarria da, kalitate onenarekin eta prezio ahalik eta baxuenekin lan egitea da gure helburua.

Eskaintzen ditugun zerbitzuak oso erabilgarriak dira izan ere inguruan dauden taberna guztien benetako informazioa ematen du eta norberaren gustuetara egokitzen direnak gomendatzen ditu balorazio onak ematen, ez daude hori egin dezaketeen aplikazio asko horrelako kalitate eta prezioetan eskura ditzazkegunak. Gainera berezoarentzat ere lehiaketak/ zozketak egiten dira, hau da kontsumizio bakoitzeko puntuak lortzen dira eta puntu kantitate bat lortutakoan aplikazioan aukeratutako edozein tabernetako kontsumizioiak doain ateratzen dira. Zozketa horiek ere bereizten gaituzte lehiakideekin, gure diseinuak soilik lortzen dituelako horrelako lehiaketak irabazle eta sariarekin gure bezeroentzat.